


«Oposizioak ez du nahi nik nire buruari dominarik jartzea»

Grosen duela 47 urte jaioa, Odon Elorza Donostiako alkate izan da azken hiru legegaldietan. Besteak beste, Audituz Akularrez, etxebizitzaren arazoaz eta Prestige-ren hondamendiaz aritu gara berarekin.

Ander Usabiaga

Duela urtebetetik PSE-EEK gutxiengoa eutsi dio Udal Gobernuari, eta zenbait proiektuk -Cristina Enea berritza edota Audituz Akular- ez dute aurrera egin. Urte gogorra izan al da zuretzat?

Bi egitasmo horiek dira, orain arte, aurrera eraman ez ditugun bakarrak. Audituz Akularreko proiektuarena penagarria da; alderdi politikoen interes alderdikoiek atzera bota dute, Donostiako gizarte arazorik larriena etxebizitzarena denean, hain zuzen. PPK Udal Gobernuan zegoela eman zion ezezkoa Audituz Akularreko hirigintza plana bideratzeari: 2001eko abuztuan, gobernukideok aurrekontuaz ari gi-



Proiektu guztiak Gobernu Batzordeak onartu ondoren ezaugarritzen dira. Oposizioak nahi luke alkatea beti isilik egotea, informaziorik ez emateko, herritarren artean itxaropenik ez sortzeko... Hori oposizioak eskatzea logikoa da, eta logikoa da nik ez onartzea; nik ezin dut isilik egon, proiektuak saldu behar ditut, itxaropena piztu eta batzere ere, ideia berriak ekarri.

Audituz Akularrez aritu gara lehen. Zenbait alderdi politikok eta elkartek salatu dutenez, dentsitate handia eta azpiegitura falta duen auzo batean egin nahi dira 3.000 etxebizitza horiek...

Aitzakiak jartzen ari dira, eta bakar bat ere ez dago datu objektiboetan oinarrituta. Altza XXI izeneko plataformak, Batasunatik gertu dago-

nela, PPK Audituz Akularren lurra erosteko partida guztiak kendu nahi izan zituen. Traizio hura alde batera, proiektu ugari atera ditugu aurrera hitzarmenak eginez. Hainbatetan, EA-EAJrekin; beste batzuetan, gutxiagotan, PPrekin; eta beste zenbaitetan, baita DSaren laguntzarekin ere, akordioa egin gabe, helburuetan bat etorri garelako.

Oposizioak gauzak egiteko duzun modua kritikatu izan du: egitasmoak lehenabizi jendaurrean azagutarazten dituzula eta ondoren, adostasuna bilatzen ahalegintzen zarela...

enak, hitzez hitz esan du ez dutela Altzan proiektu hau nahi, ez dutelako pobreen-tzako etxebizitzarik nahi. EA-EAJrena "ez daki/ez du erantzun" jarrera da. Kontua da alkateak, etxebizitzaren gaian, bere buruari ahalik eta domina gutxien jartzea nahi dutela, ez dute alkateak kopeta goratzea nahi. Beraz, EA-EAJrentzat, Batasuna ohiarentzat eta PPrentzat bezala, arazoa zenbat eta okerrago egon, orduan eta hobe, alkateari kritika egiteko. Jokaera zitala da.

Bestalde, batzuek Audituz Akularreko berdegunean etxebizitzak egitea pena de-

**Etxebizitzaren
 gaian, jokaera
 zitala
 du oposizioak**

Pozgarria da PSOEek eskuinarekin aldeak nabarmentzea

la diote. Baina, inori damutu al zaio Intxaurrondon, Benta Berrin edo Errotaburun babes ofizialeko etxebizitzak egin izana? Garapen jasangarrian dago gakoa. Eta ez dugu ahaztu behar Auditx Akular Altzaren zenbait gabezia betetzera datorrela: etorbide handi bat, hiru parke, saihesbi-dearekiko lotura...

Alkate izan zaren legealdietan babes ofizialeko etxebizitza asko egin da. Etxebizitzaren arazoa, ordea, ez da inondik inora konpondu. Zer egin da gaizki?

Beste proiektu handi bat egin beharko litzateke. Hego Intxaurrondon babes ofizialeko 2.000tik gora etxebizitza egin zirenean, etxebizitza eskaerak nabarmen egin zuten behera. Gaur egun, Loiolako ibaiertzean 680 etxebizitza egiteko esku-bidea dugu; Morlansen ere babes ofizialeko 600 egitea onartu da; Pagolan egitekoak diren 600etatik 316 babes ofizialekoak izango dira, haietatik erdia alokairuan... Hori guztia ez da nahikoa. Zergatik? Familiak gero eta txikiagoak direlako, merkatu libreria ateratzen diren etxeetako asko Gipuzkoako herritarrek erosten dituztelako... Horregatik, proiektu handi bat behar dugu Altzan.

Sorgin gorpila dirudi. Diozunez, Intxaurrondoko proiektua gauzatu ondoren, babes ofizialeko etxebizitza eskaerak jaitxi egin ziren. Eta orain, berriro ere, beste proiektu bati heldu beste aukerarik ez omen dago. Etorkizunean gauza bera gerta liteke, ezta?

Ez. Gaur egun, 25 eta 35 urte bitarteko premiei erantzuten ari gara, eta hauek jaio zirenean, jaiotza asko izan ziren. Orain, berriz, aldaketa dator adin pi-

ramidean. Bestalde, ahalegin handia egiten ari gara babes ofizialeko etxebizitza multzo bat alokairuan eskaintzeko. Multzo horrek jende gehiagori emango dio zerbitzua. Babes ofizialeko etxebizitzak egitea oso garrantzitsua da, baina are garrantzitsuagoa da haietako batzuk alokairuan eta ondo kudeatuta eskaintzea.

Azken hilabeteotan, Udalak hartutako zenbait erabakiren kontrako ebazpenak kaleratu dituzte epaitegiek: 1995eko aurrekontua, San Bartolome, Ilunbeko lursailen trukea... Zer dio alkateak ebazpenoi buruz?

Pare bat izan ezik, oro har, ebazpen zuzenak dira. Kontuan hartu behar da, hala ere, gauzak ez direla ez beti zuriak, ez beti beltzak, eta erabaki horietako batzuk Udalbatzarreko lau alderdik -PSE-EEk, EAJk, EAK eta PPK- hartu zituztela. Argi dago gai horietan epaitegiek, oraingoz, ez ditugutela arrazoia eman eta etorkizunari begira, gauzak hobeto egin beharko ditugula; egun halaxe egiten ari garela uste dut.

Prestigeren hondamendiak galipot a5o utzi du Donostian. Nola jokatu dute, zure ustez, erakundeek arazo honen aurrean?

Eusko Jaurlaritza ondo ari da. Espainiako Gobernuak, aldiz, axolagabekeria nabarmenez jokatu du; gauza asko esan liteke horretaz. Guk salaketa aurkeztu nahi dugu epaitegian, Prestige kasuan erantzukizunak argitzeko.

Irakeko gerrari ere heldu dio PSOEek Espainiako Gobernuari oposizio gogoragoa egiteko. Zu ere gerraren kontrako pegatina jarrita ikusi zaitugu. Zer iruditzen zaizu PSOEek oposizioa gogortu izana?

Erabat logikoa da. Zenbait gaitan ez dago erdibidean ibiltzerik, Irakeko gerraren kasuan, adibidez. Baina gauza bera esango nuke beste gai batzuei buruz: lur-raren legearen erreforma, transferentzia prozesu guztiak izoztea... Pozgarria da, niretzat, PSOEek gaiotan eskuinearekin aldeak nabarmentzea, eta beste gai batzuetan ere gauza bera egitea nahi nuke.

Datozen udal hauteskundeetan ia ziur, Batasunak ez du parte hartzerik izango. Zer deritzozu?

Nik demokrazia errespetatzen duten indar politiko guztiek hauteskundeetan parte hartu ahal izatea nahi nuke.

«Txapeldunen Ligan sartuko da Realak»

Liga irabaziko al du Realak?

Bihotzak hala nahi du, baina buruak dio zaila dela, aulkian arazoa dugu eta. Realak beti ha-maikako berarekin jokatzeko aukera izango balu, ez nuke zalantzarik izango, baina argi dago Realeko eta Real Madrilko ordezko jokalariek ezin direla alderatu. Hori bai, dudarik gabe, Txapeldunen Ligan sartuko da Realak.

Josune Mtz. de Albeniz